tik arin-arinka kenduten jaken saltzaileri bape barik geratuteko bilduraz. Afera ona egin jakan asteroko mate areri.

Aste bafuan jayotza goraigafi bat izan dogu. Bastefa'tar Jon Joseba zinegotzi entzutetsuak semetxu bat ixan dau, eta ugutzan Gaizka euzkel ixen polita ezefi. Bastefa abertzale zintzuenetarikua ixan be, ta, euzkera geure izkuntzeari goraimen meresidua egin dautso.

Bilbao aldetik ibiltaldi bat egiten etofita ikusi gebazan barikuban Gernika'ko «Belu Mendu» eta bere ikasle taldia. Bareño jaunak bere ikasliari ainbat toki ikertu eragin euts - zan. Talde aretako gastian artian ikusi genduban Forua'ko euzkel idazle jatofa dogun «Ibai Gane» ospetsuba, bata Ibafangelua'ko Omar'tar Gotzon txistulari efimia.

Gexo aldi batek ogeratuta ixan dogun Arana Goiri'tar Koldobika jauna obetu jaku. Bafi onek asko poztu gauz, eta EKIN asteroko onen bitartez geure poza agertuten dautsagu.

OGOÑOPE

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.ª)
Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak
Castilla, 31 VITORIA

Mañari.

Ofila ta Bagila.

Aurtengo Ofila, ilun, itun eta negarti igaro yaku. Olan dala be baña, «orka-morka» igaro dan il begiko ofetan, zeruko geure Ama'ren babesplan alairo ta pozik ibili ixan gara. Otoitzakaz ta abestijakaz, Miren Neskutza'ren ondotxuan Ixar ain argi ta andijari adi, poz pozik ibili gayatzuz ta.

Ofila'ko loraen iñarkun deunari, elizkixun edefa egiñaz, igande afatsaldez amaya ederto baten emon geuntson; datofen urtian be (J. L.) bardin egiteko asmu berezijak bijotzetan genduzala.

Ofila'ren atzian orain, beti lez, Bagila edo obeto esateko, gure aizkide on-on batek esaten daben lez «Matasun ila» arpegi argijaguagaz agertu yaku. Bagilari, matasun utza dan Josu-Bijotz ezti-eztijari opalduriko ila dala ta, «Matasun ila» ixen gozua ezafi biar dautsogula, esaten daragoyo beti-ta. Ofa ba, ofilarentzat «Lora-ila» ixen edefa lez, bagilarentzat be «Matasun-ila» ixenaren egokija...

Lengo igandez, abade jaunak be, amafetako mezan, Josu-Bijotza'ganako eraspenatzaz gozaro gozaro itz egin euskun. Ila-onetan, Bijotz-Deuna, berariz gurtu ta aintzaldu biar dogula esanaz. Gurtu ta onetsi dagigun ba...

Abefi-Eguna.

Igaroriko igandez, guk be, «Abefi-Eguna» ospatuteko, Abefija'ren aldez Jaunartu gendun. Afatsaldian bafiz, geure batzokijan batzafa egiñaz, azkari gozua jan gendun. Eta bertan, euzkeraz irakurten eta idazten ondoen ekijien neskato-mutikueri, sari politak emon geuntsazan. Ofetan, umiok, danak be polito egon ziran; euren artian ondoen egon zana baña, Amantegi'tar Gabirel mutiko zolija ixan zan. Zorijonak; eta aufera. Ume gustijok, ezti-bitzetan poz-pozik ibili ziran.

Gero bafiz, iluntzijan abesti-aberkoyak be, abestu genduzan.

Min-artuta.

Altzaga'tar Luke «Itufijeta» basetxeko etxanderiak, kerexa-zugatzetik jausita zartada efimia artu eban. Arin osatzia opa. Emeko atsuak esaten dabien lez: «Dabilenari subertau».

Tamala.

Barikuan jausi zan txirkola-zapafadiak, emeko igali-zugatzetan kalterik asko egin eban, kerexa-zugatzetan batez be. Ijs elduta egon diranak beintzat, geyenak, gauzeztuta geratu dira. Ori dala-ta, gu tamalez gagozan bitartian bafiz, bate-bat pozpozik ei-dabil; geure kerexekaz afotuta egon garialako jazo yakula ori ta, iñun diranak esaten ei-daragoyo. ¡Badagoz gero...!

Lafegi poztuteko ezta gero, «atzeko-martitxena» eldu eztakijon be, dabilela arduraz.

«Nolakuari, alako.»

Arañegun afatsaldian Urkiola'ko aldatz-bafenian lagun batek onan iñostan.

—Zer diñozu ba, «Mañariko»?

—Eurija danian eurija, ta atefi danian atefi...—itz gitxitan erantzun neutson.

Itz ofekaz, zer esan gura dozun, eztautzut igarten... Zer esan gura dozu?

—Zuretzat ezebez... Zeuriak ixilik, eta bestienak jakin gara e...? Zu baño izpar-ekarle obiagorik ezpaneuko, ona nengoke...

Ori entzunik, nire lagunok, bafeka alde-egin eban. Bai-ba, gaurko jentiari, «kokolo-mokoluen» moduen egon barik, zirt edo zart egitia lakorik eztago. Bestela...

MAÑARIKO

UMIEN LAGUNA
Umientzako ta nausitxoentzako be
eleiz libururik edefena ta merkiena
Lauerieko batetik asita bosterañokuak, zelako azalaz gura dan.

Malabia.

Eleizkixunak.

Zeruko Amari agur egin dautsagu, baña gure biotzak zaindu begiz eta gu, igaro dan ilan antzera, berakin gomutauko al gara auferantzian be.

Orain Josu Biotza'ren ilan aurkitzen gara; ilik edefena, Bederatziufuna beriala asiko da eta igande-yayetan eleizkixun politak izango dira. Igaro dan igandean eleizkizunak aundikiro ospatu ziran, Ermuko abertzale batzuk lagun zirala eta afatsaldean Gure Jauna agirian zala lorak.

Egun onetan, Jaupa nagusia amaitu ondoren, espata-dantza ikusi beafa izan genduan; baita pozik ikusi be, beste gastaña afo-zar antzekoak ikusi baño. Mutikoak lenengo eta gero neskatoak oso poliki konpastxu dantzatu ziran. Txistularia be, bere zeregiña betetzean «número uno» zan. Zorionak. Efi koskor au aintzakotzat artu dozuelako eskefik-asko. Etofi ufengoan be.

ZEAURIKA

Edonungo eskariak egiten dira. Oyalik onenak. Berebiziko artaziak.
Eguřola Joskolak
Lekeitio'n Ufutizkiña 63 — Bermeo'n Ufutizkiña 76

Markina.

Abefi-Eguna.

Pesko egunez ospetasun aundiagaz ospatu zan iragafita egoan Abefi-Eguna. Goxeko Jaunartzeko mesan lagun asko izan zan. Eta Mesa nagusia aundikiro egin zan. «Refize»'ren mesa edefa abestu zan eta ederto abestu be. Mesa nagusi ostean egin zan plaza bafien dantza zeingeyagokea, eta aufeskua. Lagun asko egon zan eta txalo edefak jo eutsezan dantzarioi.

Beskal ostean Batzokiko aretuan abestu eben iru zortzikoteak, eta an izan ziran guztiai oso atsegin izan jaken jaia, eta bafiro olako bat noiz ikusiko ete eben esaten eben. Gero afatsaldean jolas oso politak izan ziran eleizkizun ostean. Gero dantza ez lotua eta gabean Batzokiko aretoan Antzerki jai begikoa. Egun ofetako jaia guztiai, abertzale eztiranai be, begiko izan yake.

Eleizkixunak.

Loretako ila amaituteko Maria'ren alabak egin eben Pesko egunean jai edefa. Goizian Maria'ren alaba eta Luistafen efeskada luzeak Jauna artzera uferatu zirean. Eta afatsaldean eleizkizunean itzaldi edefa egin eban Ibargutxi'tar Jon Jaun ospetsuak eta gero ibildeuna.

Asi da ertxadonan Bagila'ko ile edefa eleizkizun gogokoagaz. Goizean eta gabean ainbat lagun izaten da eleizkizun ofetara.

Eskontza.

Gure adiskide diran Bengoa'tar Jokin eta Unanue'tar Pelisa eskondu dira. Zorionak.

KUKUA

Ea.

Abefi-eguneko jayak ospe aundiz egin dira efi onetan. Su-saño ikusgafijak mendijetan, alaitasuna bijotzetan. Iñolzkorik gafik aundijenak ixiotuta, berebiziko kemena ikusi dogu gaste eta zafen artean. ¡Abefi eguna, abefi-eguna! Benetan bakana ixan da aurtengo Abefi-eguna! Emeko gasteak sutsu ibili dira, baña Bedarona'ko basefitar batek egin dauna paperetan agertu barik ezin itxi leike. ¿Su sañoak? Ba burdi bete ota batuta or goyaz geu be, diño; ta urtebiko semetxubari ixiotu eragin dautso ota mordozka edefa. Olako gixonak dagozan tokijan... zeren bildufik? Laizter nagosi adar joten. Alan diño berak.

Dabiltzanak.

Veracruz Mexiko'tik etofita emen aurkitzen da Zabala'tar Margarite, Rementeria'tar Jon abertzale zintzoaren emastea. Umetxu mexikanu-mexikanuak ekafi dauz; politak gero. Ziza-ziza mexikanurik jatofenak be xin ondo egiten dabe. Ia Margarite! tza, tze, tzi tzi, tzo, erakutsi biar jake euzkeraz egin dayen. Zorijonak.

Mendiola'tar Ander be txakur ikaragafi bategaz.

Olako Miren Alaba Maritxu ia osatuta senda-etxetik. Pozik gagoz zu olan ikustian Maritxu!

Makal zamar aurkitzen da Aldamiz'dar Akilina. Osatzea opa dautsogu.

Jayak.

Pasko-jayak ederto ospatu doguz. Pontifical 2.ª abestu eben gure mutil bardingabeak. Gabaz bafiz batzokijan ikusgafizko abestijak «Fidele, Portunato ta Miren Laisior'enak». Tartean zan Zeferino dontzua be. Zorijonak.

Ofila'ko ila amaitu zan ta Bagila'ko Josu Bijotzaren ilian gagoz. Ama-semeak lotuta maitasunez dagoz, bardin il bi oneik be. ¡Ea kistar zintzo ofeik! Ofilako antzera ospatu daigun Bagila be.

KUKU

Erigoiti.

Bayoaku.

Ainbeste urtean Metxiken egon dan txaunburu lagun Urkitza'tar Bingen jauna, Morga'ko txaunburu yoaku. Lan asko egin dau egon dan artean eta utzune andia izten dau Metxike'ko auzunian. Zorionak damotzoguz eta urte asko ta zoriontsuak opa doyan toki bafian, Jaunaren borondatea alan dala.

Lekaime.

Derio'ko «Maitasun Efukitsuaren» lekaime etxean sartu da lekaime Goitia'tar Elene neskatilea. Emen egon dan artean lan andia egiten izan dau umeai Kristiñau Ikasbidea irekasten. Baita etxe aretan bertan egin ditu Pasko bigafenean izkintzari edo botoak emeko alaba dan Afutza'tar Koikilek.

Abefi-Eguna.

Emeko abertzaleak andikiro ospatu dabe Abefi-Eguna. Aufegunean egin zituezan suak «Atiagane»n eta «Bizkaigane»n eta ainbat bolandera jaurti be. Amaiketan euki eben mezie-ta oztien ezpata-dantzariak eta baskarie batzokien. Afatsaldean Agurtza ta ezpata-dantzariak eta yantzea.

S.

Eleizkixuneturako Argizagizok kundeluk
Elexiak aginduta daukazan erakuak
Kandela motak: MAXIMA ta NOTA BILI, ziguftasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.
Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkero, argizagi asko aufeztuten da.
QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA
GAZTEIZ.-ARABA (VITORIA)

Gautegiz-arteaga.

Elex deyak.

Igazi dan igandeko jaupa nagositan irakufi ebezan gure adizkide on eta aberkide zinduaren irugafen eskon deyak. Neskatila Gabika'ko alabia ei-da, baña neuk, elexako atse-aldian nengua-lez, enebazan ondo entzun bere ixen-abixenak. Azketsi ba; eta zorionak.

Abefi-Eguna.

Guztiz ederto ospatu dogu aurtengo Abefi-Eguna. Aufegun gabaz su-sañuak «Antoliñ»eko atx ganian, txistu, tanbolin eta aufesku ta guzti. Igandian, biribilketa, sariketa, aufesku eta abar.

Euzkeraz irakufi eta idazten lelengo sarija eruan eban Mendezona'tar Iñaki'k; eta bigafena Aberasturi'tar Kostantze'k. Aufeskugiñen, lelengua Naberan'tar Bitoren'ek; eta bigafena Lamikiz'tar Julen'ek. Zorijonak danori. Bitoren, tanbolinteruen semia da-ta irakasle ona euki dau; baie Julen'ek...? Bokaziñua, gixonak, bokaziñua! ¡Aufeskulari ona lez EKIN-saltzale ona be ba-da gero au!

Zozketia.

Don Paulok, Zendokiz'tar Aba mixiñolarijari zerbait bidaldu al ixateko egiñ daben andrakila zozketan, *128'* gafen zenbakijak urten dau saridun. Arteaga-aldian oindiño eztau txantel onen bafirik eta ia or Foru-aldian edo agertzen dan, or be 142 txantel salduta dagoz-da. Lelenguan esan zan baze Gazea'ko Estepane'ri edo urten ete eutsalakua, baña ezta egija ixan-biar, iñor ezta bila etofita. ¡Len be Estepane'k ezteuko ba «andrakila» ta «gixonkilo» gitxi!... kontixu or Batxi, bera ixengo da, etxeko andrakilak be naikua dituezala-ta, kanpoko andrakila bafirik gura eztabena... ¡Zeurie efezoye, Batxi! Jaunoikuak emoniko andrakila-gixonkiiotxuok azi egixuz ondo-ondo ta beste onek, urten badeutzu be, ezteutzule urten esan da kitu. Danok zerurako ixan zatezela ba.

NONOR

GORUNTZ - GAYAK
Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekale, 50 BILBAO

Nabarniz.

Abefi-Eguna.

Aundikiro ta zaletasun osuagaz ospatu zan geure «Abefi-Eguna». Larunbat iluntzian txistulari ta gusti abesti alayak abestuaz «Ilunzar» mendira aldra aundia igon genduan, sugafak egitera. Igandian asi ta egunari dagokion lez ondo erantzun eutsen gustiok. Abefi emokunera be ederto erantzun eben, beste urtietan baño obeto. Olan igaro zan egun au euzko oitura edefian gustiak jolasturik ta azkenez «Gora ta gora» abesturik.

Ofila.

Miren Ama garbiaren ilak iges dausku, agur egin dautsogu datofen urterarte. Orain daukogu il edefa benetan Jesus artzañarena. Gustiok ba len baño be obeto erantzun biar dogu, iñoz baño etsai geyagoz inguraturik aurkitzen garalako, beraren laguntasun bila juan biar dogu txadonara egunian-egunian, al dogun guztiok.

ILUNZARPE

Abadiño.

Abefi-Eguna.

Abertzaliak oso alai egunori ospatu eben. Afatsaldian txanboliñ soñuan dantzatuaz. Baña beste egunetan, ¿zer dala ta dantzatu ez bardin? Euzkadi maite dabenak, euzko-dantza, euzko-abesti, euzko-olerki oitura ta abar maite bear dttu. Euzkaldunentzat, urteroko egun guztiak dira, abefi-egunak.

Poxpoliñak.

Oneik bai, oneik abesti samufakaz eta dantza politakaz biotza eureganatuten ebela. Aek abesti politak biotzen bafeneraño sartzen ziran. Zorionak Lizundia, Efapele, Pagate ta umetxoai.

Azterketak.

Mendiolan ta Matianako auzo-ikastoletan azterketak izan diran. Entzun dogunez oso ederto egon ei dira umiak euren erantzunetan. Zorionak irakasleme ta umiai.

Naskaldia.

Salterain'tar Tomas, Zuazua'tar Teodoro, Afinda'tar Juan Maria, Gastelu-Itufi'tar Silbestre ta Ajuria'tar Felix, abade ikasleak etxeratu dira. Ondo etofiak.

Jayotzak.

Mintegi'tar Eusebio ta Bereziartua'tar Luisak alabatxo bat Maria Isabel Susana ugutzau dabe.

Ezenafo tar Jose ta Badaya'tar Josefak beste bat, Basilia izenagaz.

Garzia'tar Manuel ta Urien'tar Blankak Jagoba euzkel-izenagaz.

Etxebafia'tar Eugenio ta Afoita'tar Tomasak Miren Argiñe izenagaz. Zorionak guztiori.

Auzo-ikastolak.

Auzo-ikastoletan lenengotan juntak izentau ziran, euren ikastolen ardura euki dagien. Baña efiak edo auzoak yoan ezaz euren ezkubidiai itxiten asi ezkero, Jesus maitearen irudia aufian euki beafean, an ipiniazoten dautsiez agintariak irakaslemeai, beste irudi batzuk. Gure auzo ikastoletatik iñoiz be, ezeutsien auzoak itxi bear kurutzek kentzen.

TRAÑA